

HERRIKIDEAK

Hiri biodibertsitatea

ERAKUSKETA
Zarautz, 2021





HERRIKIDEAK:



HIRI BIODIBERTSITATEA”

ERAKUSKETA

Herrian, erdigunean zein auzotan, kale, parke, horma eta eraikinetako biztanleak ditugu haritz, gorosti, txolarre, urubi, enara, muxar, saguzar, txantxiku, sugandila, arkanbeleak... zerrenda luzea. Bakoitza bere bizi beharrekin, bere beharrezko iluntasun, argitasun, egonleku, gordeleku eta kumalekuekin. Sarri, ez ditugunez identifikatzen herritar lez, ezin begirunerik izan hauen beharrei, ezin solidaritate apur bat eskaini; ezin geure gogoei apur bat uko egin eta ondoan ditugun bizilagun hauekin bizikidetza sano bat eraiki.

Ez nahi ez dugulako, seguru! Ezjakintasunagatik, egunerokotasunaren inertziak halako gauzetan pentsatzera bultzatzen ez gaituelako, edo auskalo zergatik, ez gara ohartzen aipatutakoez.

Erdiguneak gordetzen duen biodibertsitatea oso garrantzitsua da, bertan babesten eta elikatzen dira beste askoren artean saguzarrak, sorbeltzak, enarak, txantxikuak, urubiak eta hontz zuriak, esaterako. Intsektu eta sagu-arratoi jaleak, gure etxe inguruak garbi mantentzen dituzten herrikide leialak. Zeinek nahiko luke hauek arriskuan jartzea? Nork ez du nahi herriko biodibertsitatea babestea? Izan ere, hauen ongizateak bermatzen du geurea.

HELBURUA

Gure egunerokotasuneko bizitzan, gurekin batera herri erdigunean bizi diren espezieak zenbat eta zeintzuk diren ezagutaraztea eta hauen **existentziaz jabetu** eta **errespetuzko bizikidetza** sustatzea du helburu erakusketa honek.

Izan ere, **osatzen duten biodibertsitatea herrian harro egoteko balore ordezkazina da.**

Ohar gaitzen gu ez ginatekeela izango beraiek ez balira.
Elkarrekin osatzen dugula herria!